

JARRAIBIDEAK TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANAREN EZARPEN MAILARI BURUZKO GALDETEGIA BETETZEKO

(SORTUTAKO ENPLEGUA IDENTIFIKATZEKO JARRAIBIDEAK. DOKUMENTUAREN AMAIERAN IKUSI)

Tokiko Agenda 21eko ekintza plana gure udalerrian zein neurritan bete den jakin nahi baita, planeko ekintzekin zerikusirik duten ataletan zer egin den adierazi behar da, plana burutzeaz arduratu diren eragileen bidez.

Ekintza plana hainbat ekintzez dago osatuta, bakoitzak bere kodea duela (2.3.1, adibidez) eta, gainera, ekintza bakoitzaren inguruan **jarduera** batzuk egingo ziren beharbada. Jarduera horiei buruz arituko dira eragileak beren erantzunetan.

Erantzunak neurketa aldiari egokitu behar zaizkio. Dena den, lehenagotik burura eramandako jarduerak ere aipa daitezke, **Urtea** zutabearen aukera hori adieraziz gero.

Erantzun (jarduera) bakoitzeko eremu hauek bete behar dira:

EKINTZAREN KODEA

Hiru digituko kode bat da eta jarduera zein ekintzako den adierazten du. Delako ekintza osatzen duten jarduera guztiei kode bera jarriko zaie.

JARDUERA

Halako kodeko ekintza dela-eta neurketa aldian egin diren jarduerak sartu.

Erantzunak ikuspegi askotakoak izan daitezke (diru laguntza eskatu eta onartzea, azterketa bat egitea, mantentze lanak enpresa kontratatu bati ematea eta abar). Horregatik bada, **erantzun bakoitzeko ikuspegi horietako bakoitza zein egoeratan dagoen agertu beharko litzateke.**

Oso garrantzitsua da jardueraren idazketa zehatza izatea, ebaluazio prozesuaren arduradunak ongi uler dezan zertan datzan jarduera hori. Ondorengo adibidean, jarduera nola ez den idatzi behar agertzen da:

“Berdegunea hobetzeko proiektua”

Horrela idatzita ez dakigu garbi zer adierazi nahi den. Hau da, ez dakigu edo proiektua burutu den edo, besterik gabe, proiektua idatzi den edo kanpoko enpresa bati esleitu zaion. Horren ordez aukera hauek dauzkagu, adibide bezala:

- Berdegune bat hobetzeko **proiektua burutu da** halako lekuan. Halako parkean lau eserleku jarri dira, lorategietan bertako landareak jarri dira, ureztatzeko tanta sistema jarri da.
- Kanpoko halako enpresari halako lekuko berdegunea hobetzeko **proiektua esleitu zaio**. Baldintzen orrian ondorengo irizpideak jarri zaizkie: ureztatze sistemak

eraginkorrak izatea, bertako espezieak sartzea eta konpostatze sistemak erabiltzea.

- Halako lekuko berdegunea hobetzeko **proiektua idatzi eta onartu da**. Ondorengo irizpide haiek hartu dira kontuan: ureztatze sistemak eraginkorrak izatea, bertako espezieak sartzea eta konpostatze sistemak erabiltzea.

URTEA

Galdetegia jardueraz eta urtez-urte bete behar da. Hau da, jarduera bat, bi urtean zehar burutua izan bada, lerro batean lehenengo urteko egoera jarriko da eta hurrengo lerroan ekintzaren kodea errepikatuko da, jarduera ere errepikatuko da (hurrengo urtean jarduera hori errepikatzen dela esateko komatxoak jarri daitezke), urtea adieraziko da, eta bigarren urteko egoera jarriko da.

EBALUAZIOARI DAGOKION ATALAK:

Jarduerak betearazteko ERANTZUNKIZUNA:

Jarduera betearazteko erantzukizuna duen sailaren izena adierazi behar da eta ezagutzen bada, jardueraren betetzean parte hartu duten beste sailen izenak.

Jardueraren EGOERA:

Neurketa aldia kontuan hartuta, adierazi zein egoeratan dagoen jarduera.

Ondoren, egoeraren inguruko egoera posibleak aipatzen dira:

Aurreikusita (A)	Jada baliabideak badituen jardueratzat jotzen da; horren hasiera oraindik ez da egin, baina ebaluatzen ari den urterako dago aurreikusita.
Hasita (H)	Jarduera ebaluatzen ari den denbora epean hasi da.
Amaituta (Am)	Jarduera ebaluatzen ari den denbora epean amaitu da.
Etengabea (E)	Denboran zehar modu jarraian garatzen diren jarduerak dira.
Puntuala (P)	Hasieran aurreikusita ez zegoen jarduera da, ebaluazioan jaso nahi dena, eta printzipioz, ez da aurreikusten berriz egitea.

5 aukera posibleetatik **bakarra markatu** behar da, kasu bakoitzean dagokion laburdura jarritz: A, H, Am, E edo P.

EBALUAZIOARI ETA PROGRAMAZIOARI DAGOKION ATALA:

KOSTUA (€):


Zutabe honetan jarduerekin erlazionaturiko kostuak jaso, hauek ezagutuz gero. Bestela jardueren kostuaren estimazioa jarri.

2012ko EBALUZIOKO EGINKIZUN ESPEZIFIKOA: 2012ean TA21eko PLANETAN AZALTZEN DIREN EKINTZEK SORTU DUTEN LANAREN ATARIKO IDENTIFIKAZIOA

2012ean Ekintza Planek sorturiko lanaren hurbilketa eta karakterizazioa egiteko helburuarekin, ebaluazio prozesuen bitartez **lana sortu duten ekintzen atariko identifikazioa** egin nahi da. Horretarako:

2012ean buruturiko ekintzak Mugi21era pasatzeko momentuan, zeintzuk udal laginleriaren eskutik jaso diren, **behaketa atalean**, ekintzei honako kategoriari egokitu:

- OBRAK
- HORNIKETAK
- AZPIKONTRATATURIKO UDAL ZERBITZAUK
- AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOAK
- DIRU-LAGUNTZAK EDO PIZGARRIAK



Zer motako ekintzei egokitu behar zaie kategoria hau?

Zeintzuek **2012ean** obra, zerbitzu, horniketen erosketa, etab.en **kontratazioa sortu duten*** honako espezifikazioa jarraituta:

***HAU DA, ETZAIKATEGORIARIK EGOKITUKO 2012 BAINO LEHENAGOKO URTEETAN SORTU DIREN KONTRATAZIOAEI**

OBRAK	Bideen berreskurapena, bidegorrietarako obrak, horniketa sareen aldaketa, ...
HORNIKETA	Ibilgailu elektrikoaren erorketa, bide-seinalazioa, hiri-altzariak, materialak, ...
AZPIKONTRATATURIKO UDAL ZERBITZUAK	Urte barneko gaikako zabor-bilketarako zerbitzuen kontratazioa, etxez-etxeko laguntza, garraio publikoa, ...
AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA	Ikerketak, proiektuak eta laguntza teknikoak.
DIRU-LAGUNTZA EDO PIZGARRIAK	Energia berriztagarrien sustapenerako udal diru-laguntzak edo pizgarriak, etxebizitzaren errehabilitaziorako sustapena, etab...

2012ean kontratazio berririk sortu ez duten baina aurreko urteetatik jarraipena duten ekintzek?

2012ean kontratazio berrikoak ez diren ekintzak baina aurreko urteetatik jarraipena dutenei, honako kategoria egokituko zaie:

HAINBAT URTETARAKO	<i>2012ean jarraipena duten zerbitzuak, ikerketak, asistentzia teknikoak,zeintzuk 2012ean gastua eragingo duten, baina aurreko urteetako kontratazioetatik datozen</i>
--------------------	---

ADIBIDEAK:

EKINTZEN ADIBIDEAK	KATEGORIA, BEHAKETA atalean
<i>Bidegorri sarearen luzapena X eta Y auzoen artean</i>	OBRAK
<i>Udaltzaingoarentzako 2 kotxe elektrikoaren eskurapena</i>	HORNIKETA
<i>Udaran zehar, XXko auzoko aparkaleku gunea eta hirigunea lotzen dituen autobus linea kontratatu</i>	AZPIKONTRATATUEN UDAL ZERBITZUAK
<i>Udaran zehar, hondartzetako birziklapenerako paperontzien erabilerarako ingurumen-hezkuntza kanpainen sustapena, ingurumen-heziketan espezializaturiko enpresa bateko 4 hezitzaileen bitartez zuzeneko informazioa jaso ahalko da astean zeharreko 4 egunetan eta goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak bitartean</i>	AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA
<i>Hirigune historikoko fatxaden errehabilitaziorako sustapena</i>	DIRU-LAGUNTZA EDO PIZGARRIAK
<i>Baztertze arriskuan dauden pertsonen etxez-etxeko laguntza (2009an 4 urtetarako azpikontraturiko zerbitzua izan zelarik)</i>	HAINBAT URTETARAKO